

“Badao harreman bat, elementu estrukturalaren eta giza gorputzaren artean”

Sahatsa Jauregirekin solasean



Kepa Iturralde

«Doktor-Ingeneur», arkitektoa, ikerlaria eta irakaslea TU München-en

Jasotze data: 2021-10-08

Onartze data: 2021-11-01

Aldiriren azken azala egiteko, Sahatsa Jauregi Azkaraterekin (Itaparica, Brasil, 1984) kontaktuan jarri gara. Artista moduan hainbat sari jaso ditu, esate baterako, 2019ko Gure Artea saria. Gaur egun, artista-jardueraz gain, Bilboko Okela proiektuan ere badabil lanean.

Aldiri: Zuk margoturiko ilustrazioa izan zen Aldiriren lehen zenbakiaren azala. Aldirik azken hamar urteotan nolabiateko bilakaera izan du. Nola bilakatu da zure lana azken hamar urteotan?

Sahatsa: Ba, 26 urte neuzkanean lehen zenbakia atera zenean, Arte Ederrak ikasketak bukatu nituen eta irudi errepresentatiboa lantzen jarraitzen nuen. Irudiekin nenbilen garai hartan, gustu txarreko paisaia idealizatuen errepresentazioa nolabait umorearekin adierazten nuen, esate baterako, ilunabarrean giroturiko paisaia tropikalen bitartez, Kitsch delakoaren ideia nolabait azaleratuaz. Ondoren izan nuen mozketak esanguratsu bat. Montehermoso jauregian (Gasteiz) izan nuen erakusketa baten harira, eskulturara hurbiltzen hasi nintzen eta objektuetan zentratu nintzen. Nolabait objektu ilusionistak ziren nire interesekoak, adibidez materialen imitazioa egiten zuten beste material batzuenak. Konturatu nintzen marrazten nuen gai hori 3Dtan landu nezakeela, teknika eta abilezia berezirik baliatu gabe. Eta hori izan da orduz geroztik garatu dudana bidea, irudia sahiestuaz, espeziifikotasuna eta diziplina-zeharkakotasun kontra.

A: Aurkeztu duzun azala irudi edo argazki bat da baina. Gainera persona bat ageri da kontestu konkretu batean. Nola azal dezakezu azala garapen horren barnean?

S: Bai, baina eskultura efimero baten irudikapen bat da. Hau modu espontaneoan hasi nintzen egiten, lagunak estudiantora etorri eta urteetan akumulatu ditudan trasteak eta kaxetan nituen eskulturekin lanean. Askotan eskultura bat egiteko zazpi objektutik bakarra erabiltzen dut, horregatik ditut hainbeste traste. Modu inprobabilan hasi nintzen argazkiak egiten, giza gorputz naturala, bizirik ez duten objektuekin harremanetan jarriaz eta argazkiak egiten hasi nintzen. Eskulturekin gertatzen zaidanaren kontra, nolabait ideia edo intuizio bat izaten dut alde aurretik, baina ezin dut gehiegi planifikatu, alde aurretik ez dakidalako giza gorputz batek nolako lotura izan dezakeen objektu inerte batekin harremanetan jartzean. Lan egiteko modu horrek eskultura soilak eskatzen duen baino erritmo biziago batera behartzen zaitu, beste pertsona batek ere parte hartzen duelako. Nolabait arte eszenikoekin ere badu erlazioa. Azalean agertzen dena argazki-saio horietako batean eginikoa da, plazaratzen lehenengo da gainera.

A: Bidali duzun lanean nolabaiteko heldutasuna nabari da, transgresoretik ere badu, nolabaiteko afirmazio bat ageri da.

S: Hasieran pentsatu nuen eskultura bat jartzea, azken aldirian egiten ditudan eskultura handien modukoa, Aldiri bezalako medio batera egokitze asmoarekin. Baina gero konturatu nintzen argazki-saio horietan eginikoa izan zitekeela arkitektura-aldizkari bati aportatu diezaiokeen onena. Hala ere, badao harreman bat, elementu estrukturalaren eta giza gorputzaren artean, monumentala izan nahi duena. Transgresorea izateaz gain, nahiko nuke lehen Sobietar Batasuneko irudikapen artistikoekin lotura bat izatea.

===